



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
Carmelo Ayoroa Hualde
María Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena

2017ko martxoaren 29an, 19:00ak direnean, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. OBRAK EGIEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

A.O.F.ek lizentzia eskatu zuen *Urdobi* errekaaren ohean porlana botatzeko, 2 poligonoko 505 partzelara sartu ahal izateko (lurzoru urbanizaezina). Jarduera baimendua da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 111. 2 artikuluaaren arabera. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da obrak egiteko lizentzia ematea O. andreari, betebeharrak hauek konplitzera baldintzatua:

- Kantauriko Ur-Konfederazioaren baimena lortu obrak hasi aurretik.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 992 eurokoa da eta ordaindu beharreko zenbatekoa 29,76 euro.
- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Hondakinen kudeatzaile baimendu bati entregatu obra hondakinak (23/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispenetako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen).
- Obrak egiterakoan, Udal araudiak jartzen duena bete, hirugarrenen eskubideak errespetatu eta eskatu den obra baino gehiago ez egin. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. HIRIGINTZA HITZARMENAK. 1 POLIGONOKO 12 ETA 220 PARTZELAK (LATSAGA).

1. Iturengo Udalak, 2017ko urtarrilaren 24an egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea kudeaketako hirigintzako hitzarmena, espedientea abiarazteko baizik ez, 1 poligonoko 12 eta 220 lurzatiei dagozkien lagapenak eta urbanizazioa finkatzeko egina. I.A.M. eta L.M.A.V. dira espedientearen sustatzaileak. Espedientea jendaurrean egon da otsailaren 21eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean (36. zenbakia) eta ez du inork alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabakitzen da:

1. Behin betiko onespina ematea kudeaketako hirigintza hitzarmenari.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea alkateari.
3. Onespen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

2. Iturengo Udalak, 2017ko urtarrilaren 24an egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea, espedientea abiarazteko baizik ez, 1 poligonoko 220 lurzatiko planeamenduko hirigintza hitzarmena. L.M.A.V. da espedientearen sustatzailea. Espedientea jendaurrean egon da otsailaren 21eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean (36. zenbakia) eta ez du inork alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 24. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabakitzen da:

1. Behin betiko onespena ematea planeamenduko hirigintza hitzarmenari.
2. Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea alkateari.
3. Onespen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Mikel Gereka bilerara sartu egin da.

4. 2016KO KONTUAK.

2016ko kontuen espedientea aztertu ondoren, Kontuen Batzorde Bereziaren funtzioetan, aho batez erabakitzen da:

1. Aldeko txostena ematea 2016ko kontuei.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

5. MOZIOAK.

1. Amnistia Internacional-ek errefuxiatuei buruz bidalitako mozioa onesten da aho batez eta erabakitzen da Espainiako Gobernuari eskatzea pertsona errefuxiatuak hartzeko prozedura azkartzea.

2. Aho batez erabakitzen da Altsatsuko Udalak proposatutako adierazpen instituzional hau onestea: Iturengo Udalak 2017ko Vianako Printzea Kulturaren sarirako Enrike Zelaia hautagaiaren alde egin nahi du, bere eredu praktikoak eta obra oparoak gure herriko historian dagokion tokia har ditzaten.

3. “GUERNICA” GERNIKARA izenburuko mozioa onesten da aho batez eta erabaki gauek hartu:

- Udal honek adierazten du Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picasso-ren “Guernica” margolanaren kokapenik egokiena Gernika dela. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, “Guernica” Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiko Gobernuari eta Kultura Ministerioari.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaldu nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

- Erabaki honen berri emango zaie: Nafarroako Gobernuari, Espainiako Gobernuari eta Kultura Ministerioari.

4. “Elkartasuna alkate kurduekin” izenburuko mozioa onesten da aho batez eta erabaki gauek hartu:

- Udal honek salatzen du azken urteotan, eta bereziki 2016ko uztailaren 15eko estatu-kolpe saioaren ondorioz, Turkiako gobernuak hartu duen jite autoritarioa, zeinen ondorioz herritarren oinarritzko giza eskubideak eta printzipio demokratikoak etengabe larriki urratzen ari baitira.

- Bereziki larria iruditzen zaio Udal honi herritarrek demokratikoki hautatutako ordezkariak, alkateak kasu, gobernuak dekretuz kargugabetu izana.

- Udal honek elkartasuna adierazten die alkate horiei eta arrazoi politiko soilengatik kargugabetu edo kartzelaraturako ordezkari politikoei.

- Udal honek bat egiten du joan den azaroaren 24an Europako Parlamentuak hartutako erabakiarekin, non Turkiaren adhesio-prozesua izoztea eskatzen baitzen, estatu horretan demokraziaren oinarriak jasaten ari diren higadura arrazoitzat hartuta.

- Udal honek eskatu egiten dio Turkiako gobernuari errepresioarekin buka dezala, oinarritzko askatasun demokratiko guztiak berrezar ditzala eta lehenera diezazkiekeela errepresioa sufritu duten herritar eta erakunde guztiei aurretik zituzten eskubide guztiak, lanpostura itzultzekoa barne.

- Erabaki honen berri ematea Turkiako Errepublikak Madrilen duen enbaxadoreari.

6. ZENBAIT ESKAERA.

1. Aho batez erabakitzen da 200 euroko diru-laguntza ematea Tantirumairu ikastolari 2017ko *Nafarroa Oinez* antolatzeko.

Carmelo Ayoroa bilerara sartu egin da.

2. E.M.Z.k aurkeztu zuen idazkia irakurri du idazkariak. Bertan azaltzen du 3 poligonoko 98, 111 eta 445 lursailetakoa etxebizitzetara doan bidea hondatzen dela maiz eta 2 aukera proposatzen dizkio Udalari: Udalak hormigoia jarri eta 3 etxeetako bizilagunek hedatzeko lanak egin; edota, bidearen mantentze-lanak 3 etxeetako bizilagunek egin auzolanen truke. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da ondoko honen berri ematea M. andreari:

- Lurzoru urbanizaezinean eraiki ziren 3 etxebizitza haiek. Horren harira, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 116.5 artikulua dio: *“Zerbitzuen ekipamenduak eta etxebizitzetarako sarbidea jabeen esku geldituko dira, beraiek egin beharko baitituzte, autonomoki eta bakarka, lehendik dauden azpiegituretako hartuneetatik, batere aldatu gabe lurzoru urbanizaezina babestu edo gorde behar izateko balioak eta arrazoiak, eta lurzoru horren babes arauak errespetatuta.”*



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- Bidea hondatzen denean Udalari abisua eman beharko diote eta auzolanean konponduko da beste bideekin egin ohi den antzera.

3. Aurkeztu duen eskaera aztertu ondoren, aho batez erabakitzen da Barne Formakuntza SLri baimena ematea idazkera digitaleko ikastaroa emateko Eskolan, urritik ekaina arte.

4. Aurkeztu duen eskaera aztertu ondoren, aho batez erabakitzen da Y.M.ri baimena ematea haur erreflexologia ikastaroa emateko Herriko Etxeko ganbaran, martxotik maiatza arte.

5. J.M.F.k aurkeztu zuen idazkia irakurri du idazkariak. 2 gai azaltzen ditu idatzian: Amezti bidea hartzeko kurban kamioi bat egon ohi da eta ikuspena kentzen du; Latsaga Auzoko iturriarekin dauden arazoak. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da:

- Kamioiaren jabeari eskatzea ez aparkatzea toki hartan, ikuspena kentzen duelako.

- Iturriaren aferan ez sartzea Udala.

6. Iturgintza Berotzak aurkeztu dituen agiriak irakurri ditu idazkariak; bertan azaltzen dira arrain haztegi zaharrean martxan jarri nahi dituen proiektuak. Horietako bat da arrain haztegia abian jartzea eta errekan dagoen *Igerizarretako* presa mantentzea ezinbestekoa dela dio. Aldiz, presa botatzeko asmoa dauka Nafarroako Gobernuak, “Life Irekibai” egitasmoaren baitan. Horregatik, Iturgintza Berotzak presa mantentzeko eskaera aurkeztu du Nafarroako Gobernuan eta Udalari babesa eskatzen dio. Gaia eztabaidatu ondoren, Udalaren eskuduntza ez izan arren, aho batez erabakitzen da:

- *Igerizarretako* presa mantentzeko eskaerari atxikitzea.

- Erabaki hau jakinaraztea eskatzaileari eta Nafarroako Gobernuari.

7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Jarraian, alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:

- 2017/01 zenbakia, 2017ko urtarrilaren 24koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea M.J.F.ri estalkia eraikitzeko Asierrenea etxeari atxikita.

- 2017/02 zenbakia, 2017ko urtarrilaren 27koa, zeinean erabaki baitzen *Herriko Ostatuko* ordutegia luzatzea inauterietan.

- 2017/03 zenbakia, 2017ko urtarrilaren 27koa, zeinean erabaki baitzen *Aurtizko Ostatuko* ordutegia luzatzea inauterietan.

- 2017/3A zenbakia, 2017ko otsailaren 8koa, zeinean erabaki baitzen “UDAL BULEGOEN, KALEEN, PLAZEN ETA HERRIGUNEEN GARBIKETA. UDABERRI ETA UDAKO SASOIA” izeneko lanak onestea, langilea kontratatzeko diru-laguntza eskatu ahal izateko.

- 2017/3B zenbakia, 2017ko otsailaren 8koa, zeinean erabaki baitzen “BIDEEN KONPONKETA ETA GARBITZEKO LANAK, INGURUNEA MANTENDU ETA HOBETZEA. 2017KO EKITALDIA” izeneko lanak onestea, langileak kontratatzeko diru-laguntza eskatu ahal izateko.

- 2017/04 zenbakia, 2017ko otsailaren 14koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea T.A.ri igogailua jartzeko Aurtitz Auzoko *Eguzkialdea* etxeari atxikita.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- 2017/05 zenbakia, 2017ko otsailaren 23koa, zeinean erabaki baitzen konpromisoa hartzea 2017-2019 aldirako toki inbertsioen planak bere baitan hartzen ez duen inbertsio zatia finantzatzeko — HERRI ESKOLAKO PARTZELAREN SARBIDEA URBANIZATZEKO ETA ZERBITZUEN OBRARI dagokiona—. Hori guztia diru-laguntza eskatu ahal izateko.

- 2017/06 zenbakia, 2017ko otsailaren 23koa, zeinean erabaki baitzen konpromisoa hartzea 2017-2019 aldirako toki inbertsioen planak bere baitan hartzen ez duen inbertsio zatia finantzatzeko — ITUREN, LATSAGA ETA AURTITZEKO ZENBAIT KALEKO ZOLAKETAREN HOBEKUNTZARI dagokiona—. Hori guztia diru-laguntza eskatu ahal izateko.

- 2017/07 zenbakia, 2017ko otsailaren 23koa, zeinean erabaki baitzen konpromisoa hartzea 2017-2019 aldirako toki inbertsioen planak bere baitan hartzen ez duen inbertsio zatia finantzatzeko — LATSAGAKO AGINTE GUNEKO HERRIKO ARGIAK BERRIZTATZEARI dagokiona—. Hori guztia diru-laguntza eskatu ahal izateko.

- 2017/08 zenbakia, 2017ko otsailaren 23koa, zeinean erabaki baitzen konpromisoa hartzea 2017-2019 aldirako toki inbertsioen planak bere baitan hartzen ez duen inbertsio zatia finantzatzeko — ITURENGO AGINTE GUNEKO HERRIKO ARGIAK BERRIZTATZEARI dagokiona—. Hori guztia diru-laguntza eskatu ahal izateko.

- 2017/09 zenbakia, 2017ko otsailaren 23koa, zeinean erabaki baitzen konpromisoa hartzea 2017-2019 aldirako toki inbertsioen planak bere baitan hartzen ez duen inbertsio zatia finantzatzeko — AURTITZEKO AGINTE GUNEKO HERRIKO ARGIAK BERRIZTATZEARI dagokiona—. Hori guztia diru-laguntza eskatu ahal izateko.

- 2017/10 zenbakia, 2017ko martxoaren 3koa, zeinean erabaki baitzen herri-katastroan sartzea Nafarroako Zerga Ogasunak jakinarazitako balio guztiak eta haien banakako jakinarazpena egitea.

- 2017/11 zenbakia, 2017ko martxoaren 17koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea J.B.ri 2 poligonoko 920 partzelan daukan txabola eraberritzeko, bertan oilategia jarri ahal izateko.

- 2017/12 zenbakia, 2017ko martxoaren 21koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea R.U.ri tximiniko tutua jartzeko *Apeztegia* etxeko fatxadari, *Xosteneko* estrata aldera.

- 2017/13 zenbakia, 2017ko martxoaren 22koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea F.J.A.ri *Joanea* etxeko atearen burukoa aldatzeko.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1 Eskrituratuak dauden eta katastroan komunala bezala agertzen diren lursailen gatazka konpontzeko pausuak emateko asmoa adierazi du Udalbatzak. Horregatik, aho batez erabakitzen da Komunaleko Atalari eskatzea informazioa eta agiriak bidaltzea, transakzio-hitzarmena tramitatzen hasteko.

2. Mikel Gerekak esan du birziklatzeko etxola berria egin nahi duela Mankomunitateak eta 2 poligonoko 202 lursailean kokatzea proposatu du. Oniritzia ematen zaio proposamenari. Bestalde, aipatu du gomendagarria dela leku bat prestatzea ere kimaketako hondakinak eta adarrak botatzeko. Kokapen bat pentsatzea erabakitzen da.

3. Agiri hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; Nafarroako Gobernuak eman dituen erreketak baimenak —I.B., J.M.A., Iturengo Udala eta M.M.ri—; Nafarroako Gobernura bidali den baso-aprobetxamenduko baimen eskaera —B.U.na (luzapena)—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak —C.M.E. eta J.S.ri (luzapena)—; Lurralde eta



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Paisaia Zerbitzuak eman duen txostena Gas Navarrak egin duen obrari buruz; AEKri eman zaion baimena *Korrika* egiteko; Kantauriko Ur-Konfederazioko Ebazpena, 2017ko martxoaren 17koa, zeinean erabaki baitzen baimena ematea M. eta N.A.ri obrak egiteko *Zurtzai* erreka baxterrean.

4. Gai hauen berri eman du idazkariak: kontratatu diren langile langabetuen zerrenda; 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana.

5. Alkateak esan du kartelak jarriko direla lema honekin: “Iturenek ez du eraso sexistarik onartzen”.

9. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 21:45 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.